

UPV/EHUko DOKTOREGOKO SARI BEREZIEN DEIALDIA. 2020/2021 eta 2021/2022 IKASTURTEAK

UPV/EHUko Estatutuetan (17/2011 Dekretua, otsailaren 15ekoa) Graduondoko Batzordeari ematen zaio doktoregoko sari berezien esleipena onartzeko eskumena (90. art.).

Doktoregoko sari bereziak Doktorego Ikasketen Gestiorako Arautegiaren XIV. atalean daude araututa. Bertan esaten denez, «Unibertsitateak, ikasturte bakoitzean, doktoregoko sari berazi bat emango du defendatutako 10 doktorego tesiko edo 10eko zatiki bakoitzeko, eta honako arlo bakoitzeko: Zientziak; Ingeniaritza eta Arkitektura; Osasun Zientziak; Gizarte eta Lege Zientziak; Arteak eta Giza Zientziak (48.1 art.). Gainera, zehazten da Doktorego Batzordeari dagokiola sarion deialdia egitea eta haien esleipena onartzea.

Hori dela eta, UPV/EHUko Graduondoko Batzordeak, 2023ko martxoaren 29ko bileran, erabaki zuen 2020/2021 eta 2021/2022 ikasturteetako Doktoregoko Sari Berezien Deialdia egitea, honako oinarri hauen arabera egin ere:

OINARRIAK

1. DEIALDIAREN HELBURUA ETA EREMUA

Deialdi honen helburua da 2020/2021 eta 2021/2022 ikasturteetako eta doktoregoko sari bereziak ematea, UPV/EHUko Estatutuetako 90. artikuluari eta Doktorego Ikasketen Gestiorako Arautegiko 48. artikuluari jarraituz.

Ikasturte bakoitzean doktoregoko sari berezi bat emango da defendatutako 10 doktorego tesiko edo 10eko zatiki bakoitzeko, eta arlo hauetako bakoitzerako: Zientziak, Ingeniaritza eta Arkitektura; Osasun Zientziak; Gizarte eta Lege Zientziak; Arteak eta Giza Zientziak.

2. ESKATZAILEEN BETEKIZUNAK

Eskatzaileek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- A. Doktorego tesia UPV/EHUan defendatu izana 2020ko urriaren 1etik 2022ko irailaren 30era bitartean. Tesia 2020ko urriaren 1etik 2021eko irailaren 30era bitartean defendatu dutenen artetik amatasun edo aitasun baimena izan dutenek aukera izango dute eskaria 2020/2021 ikasturterako nahiz 2021/2022 ikasturterako egiteko, eta eskarian zehaztu beharko dute zeinetan nahi duten ebaluatuak izan. 2021eko urriaren 1etik 2022ko irailaren 30era bitartean tesia defendatu dutenen artetik amatasun edo aitasun baimena izan dutenek, deialdi honetara aurkeztu nahi ez badute, 2022/2023 ikasturteko deialdian egin ahal izango dute eskaria, deialdi hori ateratzen denean.
- B. Doktorego tesiko epaimahaiak erabaki izana tesia sari berezira aurkezteko modukoa dela eta hari cum laude apamena aho batez eman izana.

- C. Defendatutako tesiaren ondorioz, nazioartean izen handiko aldizkari batean argitalpen bat gutxienez onartua izatea, edo patente bat gutxienez aurkeztua izatea.

Arte eta Giza Zientzietako eta Gizarte eta Lege Zientzietako tesien kasuan, argitalpena liburua edo liburuko kapitulu bat izan daiteke, baina Argitalpen Akademikoen Kalitate Zigilua izan beharko du, edo «Scholarly Publishers Indicators in Humanities and Social Sciences» delakoan egon beharko da.

Argitalpenak doktorego programako lehen matrikularen dataren eta eskariak aurkezteko azken egunaren artean egindakoak izan beharko dira.

3. ESKARIAK AURKEZTEKO EPEA

3.1. Eskariak aurkezteko era eta epea

Eskaria egiteko formularioa on line bete beharko da (<https://www.ehu.eus/eu/web/doktoregoa/doktorego-tesia/sari-bereziak>) eta UPV/EHUko Graduondoko Batzordeko buruari zuzendu beharko zaio.

Eskariak aurkezteko epea hamabost egun baliodunekoa izango da, deialdi hau goian aipatutako web orrian argitaratzen den egunean hasita.

3.2 Aurkeztu beharreko dokumentuak

- A. Interesdunaren eskaria, UPV/EHUko Graduondoko Batzordeko buruari zuzendua.
- B. Eranskina, tesitik sortutako ekarpenen zerrendarekin. Adierazi beharko da zein lotura duen bakoitzak tesiarekin. Eskatzaileak ekarpenen kalitate zantzuak ere aurkeztu beharko ditu.
- C. Eranskinean aipatutako ekarpenen egiaztagiriak. Eranskinean alegatutako merezimenduak baino ez dira aintzat hartuko, eta ezinbestekoa izango da tesitik sortuak izatea eta eskatzaileak haiek dokumentuz egiaztatzea eskariak aurkezteko epearen barruan.
- D. Amatasun edo aitatasun baimena hartu izanaren egiaztagiria, hala badagokio.
- E. Aurkeztutako tesiak jakintza adarka ebaluatuko dira. Horretarako, ulertuko da tesi bakoitza atxikita dagoela interesdunak egindako doktorego programaren jakintza adarrari, programaren egiaztapen memoriaren arabera.

4. ESKARIEN TRAMITAZIOA ETA EBALUAZIOA

4.1. Ikasturte bakoitza bereizita izapidetu eta ebaluatuko da eta epaimahai bat izendatuko da ikasturte bakoitzerako.

4.2.- Jakinarazpenak egiteko eta informazioa argitaratzeko bideak

Deialdi honen inguruko dokumentazio eta informazioa eta interesdunentzako jakinarazpenak argitara emango dira UPV/EHUko Graduondoko Ikasketen web orrian, 3.1 oinarrian emandako estekan (<https://www.ehu.eus/eu/web/doktoregoa/doktorego-tesia/sari-bereziak>), eta hori izango da interesdunei jakinarazpenak egiteko modua.

Gainera, eskatzaileek helbide elektroniko bat jarri beharko dute eskarian, banan banako jakinarazpenik egin beharko balitz horra bidaltzeko.

4.3.- Baztertutako eta ebaluaziora onartutako eskarien behin-behineko zerrenda

Eskariak aurkezteko epea amaiturik, Graduondoko Zerbitzuak aztertuko da ea eskatzaileek betetzen dituzten 2. oinarrian zehaztutako baldintzak.

Eskariak azterturik, web orrian argitaratuko dira baztertutako eta ebaluazio fasera onartutako eskarien behin-behineko zerrendak, eta bertan zehaztuko da zein ikasturtetan eta zein jakintza arlotan ebaluatuko den bakoitza.

Behin-behineko zerrendak argitaratzen diren egunaren biharamunetik hasita, hamar eguneko epea egongo da erreklamazioak jartzeko, alegazioak egiteko edo akatsak zuzentzeko. Horretarako, web orrian dagoen formularioa bete beharko da on line.

4.4. Ebaluaziora onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrendak

Aurkeztutako dokumentazioa azertu ondoren, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak argitaratuko dira. Behar den epean eta eran akatsak zuzendu ez dituztenek eskaria bertan behera utzi dutela ulertuko da.

4.5. Ebaluazio fasea

4.5.1. UPV/EHUko Graduondoko Batzordeak epaimahai bat izendatuko du 1. oinarrian aipatutako arlo bakoitzerako. Epaimahai bakoitza arloko hiru irakasle doktorek osatuko dute. Epaimahaiko kideek gutxienez doktorego tesi bat izan beharko dute zuzenduta eta ikerketako seiurteko bat edo baliokidea aitortuta. Ahal dela, epaimahaiko kideetako bat UPV/EHUko Graduondoko Batzordeko kidea ere izango da. Ezin izango dira epaimahaikide izan sarietarako hautagai diren tesien zuzendariak. Epaimahaien osaera UPV/EHUko Graduondoko Ikasketen web orrian argitaratuko da.

4.5.2. Arlo bakoitzean onartutako eskariak arlo horretako epaimahaiari bidaliko zaizkio. Orduan epaimahaia eratuko da eta hautagaiek alegatu eta egiaztatutako merezimenduak baloratuko ditu. Horretarako, behar duen informazio guztia eskatu ahal izango die hautagaiei. Era berean, epaimahaiak aholkua eskatu ahal izango die adituei hala behar duenean.

4.5.3. Eskariak ebaluatzeko, epaimahaiek kontuan izango dituzte, deialdi honetan aplikatzekoak diren neurrian, balorazioa egiteko garaian Ikerketa Ebaluatzeko Estatuko Batzordeak (CNEAI) arlo zientifiko bakoitzerako indarrean dituen irizpideak, zeinak argitaratuta egongo diren 3.1 oinarrian aipatutako web orrian.

4.5.4. Epaimahaiek erabaki ahal izango dute haztapan faktoreak erabiltzea, bermatzeko sariak ekitatez banatzen direla arlo jakin bateko azpiarloen artean.

4.5.5. Hauek izango dira ebaluazio irizpideak:

1. Nazioarteko tesia: 2 puntu.
2. Liburua: 0 eta 4 puntu artean ekarpen bakoitzeko. Ikerketako seiurtekoak aitortzeko, CNEAIren irizpideak erabiliko dira.
3. Liburuko atala: 0 eta 2 puntu artean ekarpen bakoitzeko. Ikerketako seiurtekoak aitortzeko, CNEAIren irizpideak erabiliko dira.
4. Indexatutako aldizkarietan argitaratutako artikulua: 0 eta 5 puntu artean ekarpen bakoitzeko. Ikerketako seiurtekoak aitortzeko, CNEAIren irizpideak erabiliko dira.
5. Gainerako aldizkarietan argitaratutako artikulua: 0 eta 2 puntu artean ekarpen bakoitzeko. Puntu bat gehiago emango da euskaraz idatzitakoak badira. Indexatutako aldizkariak ez direnez, epaimahaiak ebaluatuko du aldizkariaren kalitatea.
6. Patenteak: 0 eta 5 puntu artean ekarpen bakoitzeko. Ikerketako seiurtekoak aitortzeko, CNEAIren irizpideak erabiliko dira.
7. Arte sorkuntza: 0 eta 5 puntu artean ekarpen bakoitzeko. Ikerketako seiurtekoak aitortzeko, CNEAIren irizpideak erabiliko dira.
8. Kongresuak: 0 eta 0,5 puntu artean ekarpen bakoitzeko. Ikerketako seiurtekoak aitortzeko, CNEAIren irizpideak erabiliko dira. Epaimahaiak baloratuko du kongresuen kalitatea (hitzaldiak ebaluatu dituen batzorde zientifikoa, kongresua nazioartekoa izatea etab.).
9. Sariak: 0 eta 2 puntu artean ekarpen bakoitzeko. Epaimahaiak baloratuko du sariaren garrantzia eta kalitatea.
10. Bestelakoak: 0 eta puntu 1 bitartean atal osorako. Epaimahaiak ebaluatuko du aurreko ataletan baloratu ez diren ekarpenen kalitatea.

Berdinketarik egonez gero, tesiaren eta bere ekarpenen eragin sozial eta zientifikoari erreparatuko zaio.

4.5.6. Epaimahaiak UPV/EHUko Graduondo Batzordeari jakinaraziko dizkiote merezimendu alegatu eta egiaztatuengatik eskatzaileek lortutako puntuazioak, 4.5.5 ataleko irizpideen arabera desglosatuta. Horrekin batera, sari berezien proposamenaren akta bidaliko diote, saritu bakoitzaren jakintza arloa eta ikasturtea zehaztuta. Aktan honako xehetasun hauek jasoko dituzte:

- Epaimahaiaren bileraren lekua eta data.
- Epaimahaiko kideen izenak.
- 4.5.5 ataleko balorazio irizpideei buruzko argibideak edo zehaztapenak.
- Eskatzaileen zerrenda, NAN zenbakiarekin bakarrik identifikatuta (edo pareko dokumentuaren zenbakiarekin) eta bakoitzak guztira lortutako puntuazioa zehaztuta.
- Sari berezira proposatutako pertsonen zerrenda, izen-deiturekin.

Aktak epaimahaiko buruak eta idazkariak sinatuko dituzte, gutxienik.

Sariak eman gabe geratu ahal izango dira epaimahaiak hala erabakitzen badute modu arrazoituan.

4.6. Behin-behineko erabakia

UPV/EHUko Graduondoko Batzordeak, epaimahaien proposamenak ikusita, sariak esleitzeko behin-behineko erabakia onartuko du. Graduondoko Batzordeko

idazkariak erabakia sinatuko du, Graduondoko eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreordearen oniritziaz, Graduondoko Batzordeko burua den aldetik, eta erabakia web orrian argitaratuko da, epaimahaiek bidalitako aktekin batera. Hori izango da interesdunei jakinarazpena egiteko modua.

Interesdunek gehienez hamar eguneko epea izango dute erreklamazioak eta alegazioak aurkezteko, behin-behineko erabakia argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita. Aipatutako epean alegaziorik jaso ezean, proposamena onartutzat joko da eta alegatzeko eskubidea bertan behera geratuko da.

4.7. Behin betiko erabakia

Erreklamazioak eta alegazioak ebatzita, Graduondoko Batzordeak doktoregoko sari bereziak esleitzeko behin betiko erabakia onartuko du. Erabakia deialdi honetan aipatutako web orrian argitaratuko da, eta hori izango da interesdunei jakinarazpena egiteko modua.

5. ERREKURTSOAK

Deialdi honen kontra eta doktoregoko sari bereziak esleitzeko UPV/EHUko Graduondoko Batzordeak hartutako behin betiko erabakiaren kontra, gorako errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio UPV/EHUko errektoreari hilabeteko epean, erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeari jarraituz (39/2015 Legea urriaren 1ekoa, 121. eta 122. artikulua).

Amaya Landera López
Graduondoko Batzordeko idazkaria

O. E.: Montse Maritxalar Anglada
Graduondoko Batzordeko burua

UPV/EHUko DOKTOREGO SARI BEREZIEN DEIALDIA. 2020/2021 eta 2021/2022 IKASTURTEAK

ERANSKINA

DOKTOREGO TESITIK SORTUTAKO EKARPENAK
(Doktorego ikasketen hasieratik egindako ekarpen guztiak hartuko dira kontuan).

ALDIZKARIETAKO ARTIKULUAK¹□

Egileak:
Interesdunaren kokapena egileen zerrendan:
Izenburua:
Aldizkaria (adierazi urtea, liburukia, orrialdeak):
Kalitate zantzuak (bere arloan ikerketako tarte bat lortzeko bete beharreko irizpideen arabera) ² .
Urtea:
Kategoria:
Kokapena kategorian:
Kalitatearen beste zantzu batzuk
Azaldu tesiarekiko lotura, eta zehaztu non agertzen diren (kapitulua, azpikapitulua, atala eta abar) artikuluan aipatutako emaitzak

¹ Artikuluaren kopia aurkeztu behar da (aldizkariaren azala, eskubideen azala, aurkibidea eta artikulua).

² Ekarpenen kalitate zantzuak aurkeztu behar dira.

LIBURUAK³

Egileak:
Interesdunaren kokapena egileen zerrendan:
Liburuaren izenburua:
Kalitate zantzuak (bere arloan ikerketako tarte bat lortzeko bete beharreko irizpideen arabera) ⁴ .
Urtea:
Kategoria:
Kokapena kategorian:
Kalitatearen beste zantzu batzuk (estatuko/nazioarteko argialetxea, bilduma, orri kopurua, beste hizkuntza batzuetara itzulita egotea)
Azaldu tesiarekiko lotura, eta zehaztu non agertzen diren (kapitulua, azpikapitulua, atala eta abar) liburuan jasotako emaitzak

³ Argitalpenaren kopia aurkeztu behar da (azala, eskubideen azala, aurkibidea eta tesiarekin zerikusia duen liburuko zatia).

⁴ Ekarpenen kalitate zantzuak aurkeztu behar dira.

LIBURUETAKO KAPITULUAK⁵

Egileak:
Interesdunaren kokapena egileen zerrendan:
Kapituluaren izenburua:
Liburuaren izenburua:
Kalitate zantzuak (bere arloan ikerketa tarte bat lortzeko bete beharreko irizpideen arabera) ² .
Urtea:
Kategoria:
Kokapena kategorian
Kalitatearen beste zantzu batzuk (estatuko/nazioarteko argitaletxea, bilduma, orri kop., beste hizkuntza batzuetara itzulita egotea).
Azaldu tesiarekiko lotura, eta zehaztu non agertzen diren (azpikapituluak, atala eta abar) kapituluan jasotako emaitzak

⁵ Ekarpenaren kopia aurkeztu behar da (liburuaren azala, eskubideen azala, aurkibidea eta kapituluak).

² Ekarpenen kalitate zantzuak aurkeztu behar dira.

KONGRESU, JARDUNALDI ETA MINTEGIETAN AURKEZTUTAKO EKARPENAK⁶

Egileak:
Interesdunaren kokapena egileen zerrendan:
Ekarpenaren izenburua:
Kongresuaren, jardunaldiaren edo mintegiaren izena:
Estatukoa edo nazioartekoa:
Argitaratu da?
<u>Argitalpenaren datuak:</u>
Argitalpenaren kalitatearen zantzuak ² :
Urtea:
Kategoria:
Rokapena kategorian
Azaldu zein lotura duen tesiarekin

⁶ Ekarpenaren ziurtagiria aurkeztu behar da.

² Ekarpenen kalitate zantzuak aurkeztu behar dira.

ARTE SORKUNTZARI EGINDAKO EKARPENAK⁷

Egileak edo interpreteak:
Obrak:
Ekarpenaren izena eta mota (erakusketa, komisariotza, proiektzioa, kontzertua, ekitaldia, eszenaratzea, kontserbatzio eta zaharberritze lana, erakunde edo enpresa baten enkargua).
Bakarkakoa/kolektiboa (parte hartzaileen kop.):
Lekua eta iraupena:
Herrikoa, estatukoa edo nazioartekoa:
Diruz lagundua, babestua:
Zabalkundea eta eragina:
Badago argitalpenik?
<u>Argitalpenaren datuak:</u>
Urtea:
Mota:
Azaldu zein lotura duen tesiarekin

⁷ Ekarpena egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztu behar da.

TESIAREKIN ZERIKUSIA DUTEN BESTE MEREZIMENDU BATZUK⁸

Merezimenduaren deskribapena:
Egileak:
Interesdunaren kokapena egileen zerrendan:
Azaldu zein lotura duen tesiarekin

⁸ Merezimenduaren ziurtagiria aurkeztu behar da.